

## 5.- BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

- **Komunikazio kanalak:**

Bide ezberdinak erabiliko ditugu: alde batetik, zeharkako kanalak diren funtsezko elkarteak. Bestetik, kanal zuzenak diren web orrialdea eta facebook.

- **Zeharkako kanalak: Funtsezko elkarteak.**

Nola lagunduko digute gure funtsezko elkarteek? etorkinei ikastaro e.a.-etaz informazioa eskaintzerako orduan, gure zerbitzuaren berri emango diete. Informazio hori zuzenean edo elkarte bakoitzaren web orrialdeen bitartez eskainiko da. Horretarako, gure zerbitzuaren nondik-norakoak azaltzen dituen eskuorriak ( web orrialdeetarako eredia baita ere) prestatu ditugu, bisita gidatuak egitera gonbidatuz. Hau da, gurekin telefonoz kontaktuan jarri, hitzordua adostu eta gu eta gure zerbitzua ezagutzera gonbidatzen ditugu.

- **Kanal zuzenak: web orrialdea, facebook, informazio saioak eta markesinetako kartelak.**

**Bidean.eus** web orrialdea sortu dugu gure zerbitzua aditzera emateko. Bertan zerbitzuaren inguruko informazio zehatzagoa ikusi ahal izango dute: argazkiak, hezitzaileen inguruko informazioa, metodologia,... eta gurekin kontaktuan jartzeko bideak zehazten dira.

**Facebook:** Sare sozialak ere erabiltzen ditugu helburu eta erabilera berdinarekin.

**Informazio saioak:** zerbitzuaren inguruko informazio saioak eskaintzen ditugu Aek, Helduen eskola eta Lanbiden. Urtean saio bakarra bakoitzean eta irailaren hasieran egiten dugu. Saio hauetan Bidean-ek eskaintzen duen zerbitzuaren eskuorria banatzen dugu.

**Markesinetako kartelak:** kalean eta edozeinentzako eskuragarri.  
Komunikazio kanal guzti hauetan, gure **logoa** agertuko da.

- **Banaketa kanalak:**

Gure kasuan eta zerbitzu batez ari garenez, **zerbitzua kanaletaz** hitz egingo dugu. Non ematen dugu gure zerbitzua?

- **Haurren gela:**

Haurrentzako prestatutako espazio itxia bi zatitan ezberdintzen dena. 0-2 urte tarteko haurrentzako egokitutako espazioa eta 3-6 urte tartekoentzako egokitutakoa. Erabiltzaileentzako "erosoa" izango den kokapena izango du, ikasten ari den lekutik ahalik eta gertuen. Harrera espazioa ere egongo da.

- **Hiria:**

Inklusioa sustatzeko erabiliko diren hiriko espazio publiko ireki zein itxiak. Haurrak eta hauen familiak elkartzen diren hiriko toki ezberdinak erabiliko ditugu. Jolas parkeak asko erabiliko ditugu, baina antzokia baita ere adibidez.